



## Bazkide garrantzitsuak

Gure enpresaren hornitzailea, itsasoko plastikoa ekarriko diguen enpresa da, hornitzaile honek plastikoa lortzea zihurtatuko digu eta gure enpresak behar dituen lehengaiak lortuko dizkigute.

Aligoplastic izango da gure enpresak edukiko duen hornitzaile nagusia, hornitzaile honek itsasoan dagoen plastikoa bilduko du eta exportatuko du.

Enpresa aurrera joaten den unean, mugimendu ekologista bat sortuko dugu, mugimendu hau sare sozialetan zabalduko dugu eta mugimendu hau itsasoko plastikoak biltzean datza, gendearen laguntzarekin aurrera emateko proiektu bat izango da.

Mugimendua sortzerakoan, zenbat eta plastiko gehiago biltzen duen pertsoneri, gure produktuetan geroz eta gehiagoko deskontua edukiko dute gure jostailuak erosteko momentuan, horrek eragingo du pertsona gehiagok parte hartzea.